

Kanpo ebaluazioa

Hobetzeko akuilua ikastetxeentzat



Kanpo ebaluazio pasa beharko dute 2009ko apirilean EAEko Lehen Hezkuntzako 4. mailakoek eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2.

mailakoek. Konpetentziak, alegia ikaslea egiteko gai dena, neurtuko dira, ez edukiak. Ikastetxeek, jasotako emaitzen arabera hobekuntza planak egin beharko dituzte.

Eskolek konpetentzien irakaskuntzari heltzeko balioko al dute? Ez al da emaitzen erabilera interesaturik egingo?

Irakaskuntzaren kalitateari astindu bat emango al dio?

LOEK BOTA ENBIDOA eta 175/2007 curriculum dekretuak hordagoz erantzun. Diagnostiko-ebaluazioak egin behar direla dio Espainiako legeak, eta Autonomia Erkidegoen esku uzten du hauek egiteko konpetentzia. EAEko 175/2007 dekretuak kanpo eta barne ebaluazioa bultzatzearen aldeko apustua egin du.

Eusko Jaurlaritzaren Berritzegune, Ikuskari eta ISEI institutukoek (Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko erakundea) prestatu dute azterketa eta aurtengo ikasturtean ISEIk egin du froga pilotua 150 ikaslerekin, hainbat ikastetxetako 44 geletan. Ondoren, Eusko Jaurlaritzari bere eredu proposamena helarazi dio, eta irail alderako ebaluazioak zehaztuko dituen arau edo agindu bat ateratzea espero da.

Zer da kanpo ebaluazio bat?

Diagnostiko-ebaluazioak egiten dituzten hainbat eredu aztertu ditu ISEI institutuak, EAE-rako izango dena diseinatu aurretik: Andaluziako, Txilekoa, Frantziako...

Barne ebaluazioak direnean, gobernuak frogatzen du eta ikastetxeek ematen die aplikatu dezaten. Ondoren, gobernuak ikastetxeen lagin bat biltzen du, eta batez-bestekoa ateratzen. Azkenik, ikastetxeen esku geratzen da bere emaitzak herrialdeko batez-bestekoarekin konparatzea. Sistema honen abantailak merke eta autonomia izatea dira.

Espainiako ebaluazioak 3 urtez behin

LOEren arabera, hiru urtez behin Espainiako Estatuko ikasle denei diagnostiko ebaluazio orokorra egingo zaie, erkidego bakoitzaren datuak konparatzeko. Azterketa hauek LH4 eta DBH2 mailako ikasleei egingo zaizkie, eta beraz, urte horietan ikasle hauek bi ebaluazio egin beharko dituzte, EAEkoa bata eta Espainiako beste.

Baina lortutako datuak ez dira konparagarriak, ez delako kontrolatzen frogak nola aplikatu den eta ez nola zuzendu den.

Kanpo ebaluazioetan, aldiz, kanpotik etortzen dira aplikatzaileak, frogak ondo kontrolatutako baldintzetan egitera. Eusko Jaurlaritzak frogak hauek aplikatzeko enpresa bat kontratatuko du, eta azterketak zuzentzeko beste enpresa bat. Azkenik, ikastetxeek eta gurasoek txosten bana jasoko dute, herrialdeko batez-bestekoa, ikastetxearen batez-bestekoa eta ikasle bakoitzaren emaitzak biltzen dituenak. Sistema honen alde txarra da garestia dela. Ordea, lortutako datuak konparagarriak eta fidagarriak dira.

2009ko apiriletik aurrera kanpo ebaluazioa pasako dute urtero LH4 eta DBH2ko ikasleek, eta barne ebaluazioa egiteko aukera ere eskainiko zaie. Horrela, kanpo ebaluazioan aztertu ezin daitezkeen alorrak osatu ahal izango dituzte barne ebaluazioarekin. Adibide nabarmenena ahozko frogak da: idatzizko hizkuntza gaitasuna neurtuko da kanpo ebaluaketekin, eta ahozko gaitasuna neurtu nahi izanez gero, ikastetxeek barne ebaluazioa egiteko aukera dute.

Metodologia: zer ebaluatu eta nola baloratu

Bi egunetan egingo dituzte ebaluazioak ikasleek. Idatzizko frogak izango dira, eta galdera

Josu Sierra, Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeko zuzendaria

“Ikastetxeentzat presioa ekarriko du, arazoan aurrean zerbait egin beharko dutelako”



Josu Sierra, Eusko Jaurlaritzari egindako eredu proposamena aurrean duela. Ebaluazioak zehaztuko dituen araua irail alderako aterako dela espero da.

Konpetentzia denak dira idatziz eta denbora mugatuan neurtzeko modukoak? Adibidez, lidergoa...

Konpetentzia batzuk idatziz bakarrik neurtzeko arazoak izango ditugu. Mugak ditugu. Beste konpetentzia batzuk, adibidez “ikasitena ikasi” edo “ekintzailera” oraindik zer esan nahi duten ere definitu gabe ditugu eta hurrengo urteetan lan handia egin beharko dugu lehenik definitzen, eta gero frogak bat asmatzen konpetentzia horiek ebaluatzeko.

Emaitzak nola hartu behar dira, zehatz mehatz edo erlatiboki?

Emaitzak zehatzak izango dira, baina erlatiboki hartu beharrekoak. Ikastetxeak jasoko duena zenbaki bat izango da, eta baita mailaketa bat ere. Familiei ere txosten bana emango diegu, pertsonalizatua. Urria eta Sandiaren egoeraren berri emango diegu. Kontua ez da izango “ikastetxe honen batez-bestekoa baxua da” esatea, baizik “Urria eta Sandia dira lagundu beharreko pertsonak, hauek ez dira konpetentzia

matematikoan hau eta beste egiteko gai”. Emaitza maila horretaraino zehaztuko dugu.

Baina erlatiboak ere izango dira, kontuan hartuko delako maila sozioekonomikoa, hau da nondik abiatzen den ikaslea, bestela injusta izango litzateke. Ezin dugu konparatu besterik gabe auzo pobretako eta Neguriko ikasle baten emaitza, desberdina izango baita dudarik gabe. Bakoitzari, batez besteko orokorraz gain, bere maila sozioekonomiko antzerakoaren batez bestekoa ere emango diegu.

Ebaluazio hauek hezkuntza sisteman zer eragin izango dute? Eskolentzat ez al da presioa izango?

Agian bai, baina nik uste presio ona izango dela. Presio iturri nagusia da lehen aldiz jakin-go dutela euren emaitza modu konparagarrian. Eta ez gaude ohituta horretara, ez gaudelako ebaluaziora ohituta, eta emaitzarik jakin gabe funtzionatzen dugu. Baina eskolaren misioa hori da, ez jantoki politikak eta autobus luzeak edukitzea, eskolaren misioa da ikasleen konpetentziak bermatzea. Informazioa ez da fiskalizatzailea izango, zentroentza-

KANPO EBALUAKETEN EZAIUGARRIAK

1. LH 4 ETA DBH 2 MAILAKO IKASLE GUZTIEK EGINGO DITUZTE, URTERO.
2. DINARRIZKO KONPETENTZIAK EBALUATUKO DIRA, EZ EDUKIAK.
3. IDATZITZ ETA DENBORA MUGATUAN EGINGO DIRA FROGAK, BI EGUNETAN.
4. BARNE EBALUAZIOAK ERE EGITEA AUKERAN EMANGO ZAIE ZENTROEI.
5. FROGA HAUEK DIAGNOSTIKOKOAK DIRA, EZ DIRA BUKAERAN EGITEN, PROZESUAREN ERPIAN BAIZIK. IKASLEAK NOLA DOAZEN EBALUATZEA DA HELBURUA, HOBETU BEHARREKO ARAZOAK DETEKTATUZ.
6. IKASTETXEEN HOBEKUNTZA PLANAK EGINGO DITUZTE DIAGNOSTIKATUTAKO ARAZOAK ZUZENTZEKO.

batzuk itxiak izango dira –test modura erantzutekoak– eta beste batzuk irekiak, nork bere erantzunak asmatu beharrekoak.

Ez dira orain arteko azterketak bezalakoak izango: konpetentziak aztertuko dira, ikaslea egiteko gai dena alegia, ez edukiak. Zortzi dira ebaluatuko diren konpetentziak, Europak hautatuak. 2009ko apirilean, zortzi konpetentzia hauek lau ebaluatuko dira: hizkuntz konpetentzia euskaraz, hizkuntz konpetentzia gaztelaniaz, konpetentzia matematikoa eta konpe-

tentzia zientifikoa. Urtero konpetentzia bat aldatu egingo da, esaterako, bigarren urtean konpetentzia zientifikoaren ordez gizarte zientziak ebaluatuko dira.

Emaitzak ebaluatzerakoan, ikasle guztien emaitzak aterako dira, eta batez-beste oro-korraz gain, maila sozioekonomikoa ere kontuan hartuko da: maila sozioekonomiko antzekoa duten ikastetxeen batez-besteak ere aterako dira, aldagai horrek eragin handia baitu emaitzetan.

“Ikastetxeek ez dute bakarrik jakingo non dauden, nora doazen ere jakingo dute”

ko izango delako informazioa, baina presioa ekarriko du, arazoen aurrean zerbait egin beharko duelako zentro bakoitzak. Urtero arazo berak ateratzen badira eta hori konpontzeko ezer egiten ez bada, orduan etorriko dira kontuak. Nik espero dut hau iraultza txiki bat izango dela hezkuntzan. Aldaketa globala da, azentua ikasleen konpetentzietan jartzen delako eta ez orain arte izan ditugun eztabaidetan, alegia, zer gai irakasten dugun eta zer ez dugun irakasten. Eztabaida hori bukatu da. Irakatsi nahi duzun gaia, baina zure ikasleen %30ak ez daki testu batetik ideia nagusiak ateratzen. Zer egingo duzu hori konpontzeko? Jada gauza garrantzitsuak planteatzen dira.

Eskolak ez al dira frogak horiek pasatzera bideratuko?

Agian hori ez da hain negatiboa, hain zuzen aldaketa delako konpetentziak eba-

luatzea. Beraz, bi urte pasatzen badituzte konpetentziak bermatzen, ez zait hain gaizki iruditzen.

Ikastetxeak orain arte edukietan oinarritu dira. Aldiz, ebaluazio hauek konpetentziak neurtuko dituzte. Lehen ebaluazioak ezustean harrapatuko ditu ikastetxe batzuk...

Bai, ikastetxe askorentzat sorpresa izango da. Baina lehen ebaluazioan ez da ezer bukatzen, urtero ikusiko dugu elkar, beraz, lasai hartu.

Ikastetxeen rankinga egiteko arriskua dago?

LOEk esaten du, eta 175/2007 curriculum dekretuak ere bai, ezin direla ikastetxeen rankingak egin. Gu ere saiatuko gara hori saihesten. Ikastetxe bakoitzari bere emaitza emango diogu, ez ikastetxe denon emaitzak biltzen dituen txostena. Rankingak injustuak dira, ez delako matizatzen ikastetxe bakoitza zer ingurunetan dagoen. Beste kontu bat da ikastetxe bakoitzak bere

“Rankingak injustuak dira, ez delako matizatzen ikastetxeak zer ingurunetan dauden”

emaitzarekin zer egiten duen. Ikastetxe batek publiko egin dezake matrikulazio garaian “nire emaitza hau da”, eta nire iritziz eskubide osoa du horretarako, ranking egiten ez badu, esanaz “ni hogeitabigarren nago”. Orain, zainduko dugu egia esan dezala. Ikastetxe batek esan dezake “nire batez-bestekoa 500 da”, baina isildu bere maila sozioekonomikoko batez-bestekoa 560 dela. Guk esan egin beharko genuke berari dagokion batez-bestekoa askoz altuagoa dela eta egia isiltzen ari dela.

Urtero jasoko dute emaitza, eta orain nobedadea da baina ikusi behar da urteen joanean zer joera duen ikastetxe bakoitzak, eta LH4an ebaluatutako ikasleek zer eboluzio egiten duten DBH2 mailara arte. Beraz, ikastetxeek ez dute bakarrik jakingo non dauden, nora doazen ere jakingo dute.



Ebaluatuko diren 8 konpetentziak:

- ✓ Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna.
- ✓ Ikasten ikasteko gaitasuna.
- ✓ Matematikarako gaitasuna.
- ✓ Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.
- ✓ Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.
- ✓ Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.
- ✓ Giza eta arte-kulturarako gaitasuna.
- ✓ Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

Lehen aldiz errolda-ebaluazioa, eta diagnostikokoa

Lehen aldiz historian ikasle denei azterketa bera pasatuko zaie, zentsu-ebaluazioak izango dira. Eta lehen aldiz, ikasle berak ebaluatuko dira bi aldiz, 4. LHN eta 2. DBHn. Horrek aukera emango du ikasleek tarte horretan zer garapen izan duten ikusteko. Beraz, kontua ez da “ea nola bukatu duten” ikustea, baizik “bukatu aurretik, ea nola doazen”.

Hobekuntza planak

Kanpo ebaluaketek derrigor ekarriko dute ikastetxe bakoitzak bere hobekuntza plana egitea, antzemandako arazoei konponbidea jartzeko. Kanpoko bi eragileren laguntza izango dute plan hauek egiteko: ikuskaria eta aholkularia. Planak betetzerako orduan, kanpoko bi eragileren inplikazioak exigentzia handituko duela espero daiteke.

35.000 ikasle urtero eta baliabide piloa

Urtero 35.000 ikasle inguruk egin beharko dituzte kanpo ebaluazioak.

Oraindik ez dago kalkulua zehatz-mehatz eginda, baina baliabide asko eskaini beharko zaizkio ebaluazioari. 175 pertsona beharko dira azterketak aplikatzeko bakarrik, enpresa bat kontratatu beharko da azterketa hauen

datuak digitalizatzeko, beste enpresa bat azterketak zuzentzeko... Eta behin emaitzak jasota, ikastetxeek egin beharko dituzten hobekuntza planak laguntzeko ikuskariak eta aholkulariak beharko dira. Baina ISEI institutuko zuzendari Josu Sierrak inbertsio hau beharrezko ikusten du: “Kontuan hartu behar da orain arte miseria bat eskaintzen zaiola ebaluazioari, eta bada garaia ebaluazioan inbertitzeko. Ebaluatzen ez dena ezin delako hobetu”.

Seminarioa udako ikastaroetan

Euskal Herriko Unibertsitateak Udako Ikastaroetan kanpo ebaluaketei buruzko seminarioa antolatu du. Uztailaren 10 eta 11n izango da, eta bertan Josu Sierra bera, Albertako (Kanada) Hezkuntza Saileko Jin Dueck, Andaluziako Hezkuntza Saileko Antonio Benitez eta Txileko Hezkuntza Saileko Leonor Cariolak parte hartuko dute.

Ikas komunitateari aldaketa handiak ekarriko dizkioten ebaluazio hauek, oihartzun handirik egin gabe, ate-joka ditugu jada. Hezkuntzako emaitza guztiek bezala, hurrengo ikasturtean lehen emaitzek hautsak harrotuko dituzte, baina denborarekin ikusiko da ikastetxeek irakas sistema hobetzeko baliatuko dituzten. ■

Xabier Muñoz, Bastidako ikastolako zuzendaria

«Gure eskualdean D ereduan ikasteko aukera bakarra gara»

1.100 biztanle inguruko herria da Bastida (Arabar Errioxa). Hamarkada batean, bilakaera handia lortu du bertako ikastolak, eta behar berriek eskatuta, aurtengoa antolatzen duen hirugarren Araba Euskaraz du dagoeneko (ekainaren 15ean). Eredu erdaldunean ikasleak erakartzeko lanaz mintzatu da Xabier Muñoz ikastolako zuzendaria.

MIKEL GARCIA

Zein ibilbide egin du Bastidako ikastolak?

Duela 28 urte euskararen interesak bultzatuta gurasoek sustatutako lanari esker sortu zen. Gela bat aurkitu, orduko baldintzetan lan egiteko prest zegoen irakasle bat topatu eta proiektua aurrera atera zuten. Sei bat haurrekin abiatu ziren eta urteen poderioz irakasle, gela eta ikasle gehiago lortzen joan gara. Hala, une batetik aurrera ikusi genuen ez ginela sartzen Udalak utzitako eraikuntzan. 1989an egin zen lehen Araba Euskaraz Bastidan, baina batik bat euskara suspertzeko egin zen, ez zegoen halako beharrik. 2004an errepikatu genuenean bai, tokiaren beharrak bultzatuta egin genuen, gela gutxi genituelako eta ikastola berri bat bultzatzeko. 2006-2007 ikasturtean ikastola berrian hasi ginen eta honek suposatu duen maileguari aurre egiteko izango da aurtengo edizioa.

Nahiko eremu erdalduna da Arabar Errioxa. Horrek gauzak zailtzen al ditu?

Lana apur bat gazi-gozoa izan daiteke, polita bezain gogorra: alde batetik asko dago egiteko eta horrek asko motibatzen zaitu, baina bestetik helburuak ezin dira denbora gutxian bete, eremu erdaldun baten ohiturak aldatzeko epe luzera egin behar da lan. Azken finean, hemengo errealitatea erdalduna da, guraso gehienek ez dute euskaraz egiten eta Errioxako ikasle ugari



“Azkeneko hamar urteetan ikasle kopurua bikoiztu egin da eta horrek zerbait esan nahi du”

ditugu. Halere, euskararekiko interesa badago, geroz eta gehiago; adibidez, IKA euskaltegiak eskolak ematen ditu ikastolan bertan eta ikasle gehienak ikastolako haurren gurasoak dira. Orain euskara ikastolatik kanpora ateratzea falta da, hizkuntzarekin egiten dugun lanak jarraipena izan dezala ikasgeletatik at; ziur gaude etorkizuneko belaunaldiarekin posible izango dela, gure ikasleak heltzen direnean.

Izan ere, bilakaera garrantzitsua izan duzue.

Bai, azkeneko hamar urteetan ikasle kopurua bikoiztu egin da eta horrek zerbait esan nahi du, ikastola txikia izan arren. Egun, 199 ikasle eta 13 irakasle gabiltza bertan. Arabar Errioxaren baitan, Oionen eta Lapuebla de Labarcan ere D eredu dago, baina gure eskualdean (Briñas, Casalarreina, Haro...) D ereduan ikasteko aukera bakarra Bastidako ikastolak eskaintzen du eta matrikulatuen erdia baino gehiago inguruko herrietatik datoz.

Araba Euskaraz festari dagokionez, zein aurreikuspen egiten duzue?

Herrian eta eskualdean hainbat ekitaldi antolatu ditugu dagoeneko giroa berotzeko eta baikor gaude, aurreko esperientziak ere onak izan direlako. Eguraldi ederra ere ia ziurtatuta daukagu hemen eta beraz jende asko espero dugu. ■

Babeslea: Hondarribiko Udala

